

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



INDALECIO OJANGUREN, 1929AN, KIRIKIÑO ETA CARLOS ELGUEZUAREKIN

Indalecio Ojanguren (1887/1972), "Fotografo Aguila" izenez ezaguna, Eibarko mendizalea izan zen, Euskal Herriko hainbat tontorretara igo zena. Lurraldean zehar egin zituen bidaia eta joan-etorrietan, makina bat argazki, baserri, eliza, ezkutu, paisaia ezezagun, herrien eta jaien ikuspegi eta pertsonaien erretratu hartu zituen kamerarekin. Ojangurennek bonbardaketa frankistek Euskal Herriko hainbat herritan izandako ondorioak ere dokumentatu zituen. Hala ere, bere irudirik ezagunenak eta argitaratuenak "Bilboko Burdin Hesikoak" dira. Bere garaiko beste argazkilari batzuek bezala, gerraostean errepresaliak jasan zituen, eta horrek bere lanbidean jardun ezinik egotera behartu zuen denbora batez. Prentsan egindako ekarpenez gain, bere argazkiak Pio Barojaren "Pais Vasco" eta beste lan batzuetan argitaratu zituen. 1926an, Gasteizen egin zen Eusko Ikaskuntzaren IV. Kongresuan, argazkigintzan egindako lanagatik saritu zuten. 1929an hartutako irudian, argazkiaren ezkerraldean ageri da, Kirikiño idazle, kazetari eta euskaltzainaren eta Carlos Elguezua eskultore eibartarraren aldamenean.